

Team Academy-ko ikasle finlandiarrak Mondragon Unibertsitatean

2006/11/06

Team Academy-ko –ekintzailetzan liderra den Finlandiako Jyväskylä Zientzia Aplikatuen Unibertsitatekoa– ikasleek Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean dihardute ekintzailetza garatzeko estrategian.

Gauza jakina da Mondragon Unibertsitateko heziketa-ereduan, Mendeberry proiektuan, ekintzailetzak garrantzi handia duela; hain zuzen ere, heziketa-eredu horrekin Europako hezkuntza-esparrura egokitzeko bidean aurrera doa eta unibertsitateak irakaskuntza tradizionala berritu du ikaslearentzako askoz ere proaktiboagoa, parte hartzaileagoa eta dinamikoagoa izango den heziketa-eredua lortu arte. Orain, Unibertsitateak Team Academy-ko ikasleen bisitarekin beste urrats bat eman du ekintzailetza lortzeko bidean.

Bi astetan zehar, ikasle finlandiarrak Mondragon Unibertsitateko ikasle eta irakasleekin bildu dira ekintzailetzari buruzko esperientziak eta ezagutzak transmititzeko eta elkartrukatzeko. Halaber, bisitak bigarren helburu bat ere badu, alegia: euskal unibertsitateko ikasleen artean ekintzailetza sustatzea. Izan ere, ekintzailetzaren helburua zuzenean lotuta dago Mondragon Unibertsitateak jada abian duen Mendeberry heziketa-ereduarekin; eredu horretan, ezagutza teoriko hutsa gaindituz beste zenbait ezagutza, gaitasun eta balore irakatsi nahi zaizkie ikasleei.

Eredu horrek enpresa eta erakundeetan aspaldidanik sortutako beharrei eta aldaketei erantzun nahi die. Behar eta aldaketa horiei erantzuteko ezinbestekoa izango da heziketa-ereduaren kontzeptua errotik aldatzea. Bisita horren iturburuan erakunde unibertsitarioek funtzio berria gauzatzerakoan –sortzeko eta berritzeko gai izango diren profesionalak hezteko– euren gain hartu beharreko erronkei buruzko ezagutzak eztabaidatzeko eta elkartrukatzeko Mondragon Unibertsitateak duen interesa dago. Hain zuzen ere, helburu horrekin jarri dira abian unibertsitateko hezkuntza-sistemaren berrikuntzan aurrera egiteko sortutako hezkuntza-proiektu berritzaileak hausnartzeko balioko duten tresnak.

